

KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA / 2008ko azaroaren 14a / 249. zenbakia / 19. urtea

- **HERRIKO KONTUAK Manuel Lasarteren liburua** 05
- **IRITZIA Joseba Brit** 18
- **KIROLA Behobia-Donostia lasterketa** 09
- **MOILA BAZTERRETIK Garbiñe Manterola** 19
- **AIAKO BERRI Ametsgaineko etxebizitzak** 11
- **HERRITARRA Jon Sarasua** 25



Orioko **modelistak**
puntaren puntan

Orio ezaguna izan da ontzigitza munduan. Gaur egun ontzi handiak egiten ez badira ere, baditugu txikiak egiten maisu direnak.



Negu honetan, ahaztu hotza.



Naturgas energiarekin, gas naturalez gozatuko duzu etxean.

Orain, erasotasunik handienaz gozatzea inoiz baino errazagoa da. Izan ere, fabrikatzaileekin eta gas-instalatzzaileekin lortutako akordioari esker, guk gas naturalerako instalazio osoa egingo dizugu, eta zuk orain arte sekula inork eskaini ez dizkizun baldintzak izango dituzu.

Egundoko prezioan:
3.300€
IBEZ kanpo!



KREDIGAS
finantziazio berezia,
instalazioa bitarteko erosten
Finantzatzen.



570€
ere emango dizugu

Promozio honek 08/12/31ra bitartean iraungo du.

Finantziazio berezi honen interes-tasa 2006rako %3,25eko itzango da Kredigas. Gurekin hitza baduzu, eta 63 urtez gorakoa bazara, 570 € jasoko duzu, hitzartutako 270 € jasoko duzu. Promozio gure gorabeherakoa da, berrituko instalazio egileak, kondentsazio-gasara itzartzaren arabera eta 6 errodore (63 elementu) jartzeko. Promozio estandarren gaineko edozein aldaketak, aparteko aurrekontua izango du. Promozio honetatik babatzeko, Naturgas Energia Comertzializadora, SA-ekin harikuntza aldo egite behar da.

902 123 456 Telefono Urdina
www.naturgasenergia.com



**naturgas
energia**

KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA

Kultur Etxea
20810 ORIO
943 83 15 27karkara@karkara.com
www.karkara.com**Editorea**

KARKARA taldea kultur elkarte

Zuzendaria

Ana G. de Txabarri

Erredakzio burua

Lore Berasaluze

Erredakzio taldeaMikel Aranzabal, Pat Cowie,
Miren Etxebarria eta
Jabier Zabaleta**Aiako erredakzioa**

Eli Lasa eta Pat Cowie

Publizitatea

Pat Cowie

Publizitatearen diseinua

Lore Berasaluze

Testuen zuzenketaMiren Etxebarria eta
Jabier Zabaleta**Ale honetako laguntzaileak**Joseba Brit, Juan Pedro
Fernandez, Hossain Kaanache eta
Joxean Manterola *Zatain***Diseinua**

KARKARA taldea eta Goio Arana

BanatzzaileakAne Etxabe eta
Ander Mujika (Orio)
Iruñe Aldai (Aia)**Inprimategia**

Gertu Koop. E. (Oñati)

Lege gordailua SS-346/90**ISSN** 1132-1105**Tirada** 3.100 aleKARKARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen edota
iritzien erantzukizunik.KARKARAN argitaratutakoa berreman
daiteke, osorik edo zatika, baldin eta
iturria aipatzen bada.

Krisia

JOXEAN MANTEROLA ZATAIN**1**

Mendebaldetik ekaitza dator,
dena hartu du enbatak;
otsoa dator, otsoa dator,
bankeroen zalapartak;
eta gu larri, txarrak baitira
eskura dauzkagun kartak;
estutasunez betetzen gaitu
diru faltaren zaratak.

2

Burtsa lurpera jaitsi da eta
euriborra ilargian;
langabezia gora eta gora
omen doa aspaldian;
argi-indarra ura ta gasa
altueneko tokian;
itolarrria nabaritzen da
behartsuen aurpegian.

3

Sistema bera eror ez dadin
behar dugunez borroka;
governuaren, denon, zakutik
bankuei laguntzak bota;
sindikatuak erdi-lotan da
ezker aldetik jota,
langilearen ekonomian,
nabaria da porrota.



KARKARA

PUBLIZITATE PREZIOAK**IRAGARKIA ALERO JARRITA**

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

IRAGARKIA BEHIN JARRITA

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko Pat Cowierekin hitz egin (695 78 07 20) edo karkara@karkara.com
Prezio hauei BEZa gehituko zaie

LAGUNTZAILEAK

Euzko Jaurlaritzak

Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabidea

Maria Jesus Elortzari

Agur Maria Jesus Elortzari, Orioko parrokiako koruko zuzendariari.

KARKARAK ematen didan aukera erabili nahi dut, has-teko, eskerrak emateko, Maria Jesus; nahiz eta taldeak hainbat gorabehera izan, gurekin egiten ari zaren lana, duzun pazientzia eta eskaintzen diguzun denboraguztia eskertzeko.

Izan ere, oso zaila da sekular kantuan jardun ez, eta erreferentziarik gabe horretan aritzea. Solfeo kontuak ere, makila oker batzuk besterik ez dira guretzat eta gure ahotsa landugabea da. Koruko gehienak adinean aurrera goaz. Hala ere, dena ezkorra ez izatearren, gure alde ditugu borondatea, fedea eta Orioko eliza maitatzea. Horregatik biltzen gara astero, kantuak hobeto lantzeko, emaitza hobea izan dadin. Zuk egiten duzun ahaleginaz ohartzen gara; dena aurrez lantzen duzu, hainbat kantu berri prestatzen dituzu; eta guk, ondoren, ez dugu ondo abes-tea lortzen.

Gainerako guztiek bezala, zure familia, lana eta dena uzten duzu, guregana etorri eta zein hanka sartze egingo dugun ikustera, beldurrez.

Baina, animo! Behar-beharrezkoa zaitugu, maite zaitugu nahiz eta askotan hala ez adierazi.

Eskerrak, berriro ere.

KORUKO LAGUN BAT

Multak munipei!

Dozena inguruko isun bilduma daukat kotxean gordeta. Horrenbeste isun jartzeko nik ere aitzakia bat baino gehiago eman diedala aitortzen dut, baina orioko udaltzaingoaren jarrera erabat salagarria dela uste dut. Nola ez, adibideren bat (baditut gehiago) jarriko dut: Kosta tailerraren ondoan dagoen jolas parkearen atzean, kosta tailerrerraino doan bide bat dago. Bide hori itxia dago pibote batzuen bitartez, ez baitu inora eramaten palotetan eraikuntzak egin bitartean, eta guk kendu egiten ditugu kotxeak bertara sartu eta entseguetarako materiala (astuna eta delikatua) eraman eta ekarri egiteko.

Gero kotxea hor uzten badugu isuna dugu itzultzerakoan; honela jartzen du, gainera: *Estacionamiento sobre acera pública*. Nik badut erantzun bat esaldi horrentzako. Estacionamiento? Bai, noski. Bertara sartzeko baimena dugu, baina ez bertan

uzteko. *Sobre acera pública?* Ez, jakina.

Lehen aipatu dudun bezala autoentzako bide bat da; espaloia ren altueran egina, beraz ez dago isuna jartzeko inongo arrazoirik. Gainera, aparkatu ezin den lekuetan isuna jarri behar bada? Zer egiten zuten bi autok, Arrantzale eta Balea kaleek bat egiten duten lekuan, espaloi gainean aparkatuta azaroaren 6an? Goizean ikusi nituen lehenengo eta arratsaldean berriz, isunik gabe bietan, eta badakit egunero eguerdian bertan izaten direla udaltzainak eskola autobusari bidea errazten. Hor utziko dut gaia.

Bukatzeke, agian egunen batean poztuko naiz isun bat jasotzean; euskeraz idatzia badago, behintzat.

MIKEL ARANZABAL

Arratoiak

Trena hartzeraino doan aurreko astean eta, moilatik pasatzerakoan, hara non agertu zitzaidan erriro aldetik arratoiak. Tipi-tapa, lasai asko aurretik pasa eta taxistek telefonoa duten kaxatxoaren zutabeen ezkutatu zen. Harrituta geratu nintzen. Presaz nengibilen eta ez nion kasu gehiegirik egin. Kontua da, arratoiaren gaia berriz ere ateratzea zitzaidala

arrandegian nengoela eta ez naizela bakarrik harrituta eta kezkatuta dagoena horrekin.

Nonbait, nirea baino handiagokoak ikusi omen dituzte anbulatorio atzeko arrandegian eta baita Goiko Kalen ere, eraitsi berri duten etxe bateko hondakinen artean, Buruandieneko etxearen parean, hain zuzen.

Ez al da kezkatzekoa?

PITXITXI

Jantzi mailot horia!

Aldapa elkarteko kideok hurrengo denboraldirako arropa berria egitea erabaki dugu. Ondorioz, herritar guztiei jakinarazten diegu azaroaren 11tik 21era arropa enkargatzeko aukera izango dutela Karela kiroldegian. Bakoitzak eskatu behar du nahi duen jantzia, tamaina eta modeloa aukeratu.

Prezioen berri Karelaren bertan emango dizuete.

Arroparen diseinua gutxi gorabeherakoa da eta prezioak orientagarriak dira.

Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu honako telefonora: 635 73 10 78 eta egin Enekoren galdera.

ALDAPA ZIKLOTURISTA ELKARTEA

SARASUA ERRETEGIA

Plater bereziak: Arrain zopa
Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29 **ORIO** Tel: 943 83 00 05/
943 13 25 32

Portu ERRETEGIA

Santo Etxeak Abuzoa, 29
943 69 44 04
20809 AIA-ORIO

biak ere laserak oinetan
paratuta erabiltzeko erabiltzen

AUTOAK AUKERA ONEAN

AIA ORIO

Telefonoa: 943 13 04 38

Kinikladenda - Ume arropa

argine

www.lasonei.com/argine
Tel: 943 13 48 89

2,5eko DESKONTUA FAMILIA
UGARIEN TXARTELAREKIN

Automóviles ZARAUZ

OTROEN ZERBITZU ORZALA

bigiñu bertatik
eta (a) bertatik
irrigi

ZARAUZ. Tel: 943 13 13 50

Carmen eta Txomin ARRANDEGIA

943 83 05 37 / 943 83 27 47

LASARTEREN ANTOLOGIA MODUKO BAT EGIN DU IÑAKI ZUBIZARRETA IDAZLEAK

Manuel Lasarte, iturria ondare liburua aurkeztu da

Ostiral goizean, hilaren 14an, aurkeztekoa zen Iñaki Zubizarretak idatzitako *Manuel Lasarte, iturria ondare* liburua Loretxu tabernan.

Manuel Lasarte bertsolariaren urte luzetako ibilbidea bil-tzen duen *Manuel Lasarte, iturria ondare* liburua aurkeztekoa zen azaroaren 14an, Loretxu tabernan; aldizkaria inprentara eramana geneukan ordurako eta horregatik ez dugu ekitaldiko argazkirik argitaratu.

Iñaki Zubizarretak idatzitako eta Auspoa sailean Sandoak argitara emandako bildumak istorio asko eta asko kontatzen ditu 405 orritan.

Aurkezpenean izan dira, besteak beste, Koldo Mitxelena Kulturuneko Kultura sustapeneko eta hedapeneko zerbitzu buru Frantxis Lopez Landatxe, Manuel Lasarte bera, Patxi Oliden adiskidea, Iñaki Murua Bertsozale Elkarteko presidentea eta liburua ahalbideratu duten Iñaki Hernandez, Julian Beloki eta Iñaki Zubizarreta egilea bera.

BERTSOLARIAREN OMENEZ

Azken 30 urteotan Iñaki Hernandez, Julian Beloki eta Iñaki Zubizarreta sarritan bildu dira Lasarterekin, lagun arteko berriketan jarduteko. Hernandez izan zen Manuelekin lagun egiten aurrena, eta hortik gutxira, gehitu ziren beste biak solasaldietara. Bertsolariarekin hizketan gustura aritzen zirela eta, hari zerbait eskaintzea pentsatu zuten: *Antologia bat etorri zitzaidan burura eta, hori luzerako lana zela eta, Julianek erakusketa bat egitea ere pentsatu zuen* esan digu Zubizarretak. Azkenean, biak egin dira, eta horiez gain, Eusko Jaurlaritzak kale-



Manuel Lasarteren lan berri honek, liburuz gain, CD bat ere badakar.

KARKARA

ratzen duen *Bidegileak* bilduman argitaratutako biografiarekin ere omendu nahi izan dute Lasarte.

ANTOLOGIA

Liburua ataletan dago banatuta. Lasarteren bizitza azter-

tzen da lehenengoan: osasuna, lana, eskolak... Familiaz aritzen da gero: gurasoak eta senideak Leitzan, biloba, seme-alabak... Bertso lagunak ere hizpide dira: Basarri, Lazkao Txiki eta, batez ere, Uztapiderekin izandako

harremana. Umoreak ere atal bat badu; zenbait gaik—erlijioak, doaiek eta naturak, esaterako— Manuelen sormenean izan duten eragina ere aztertu du idazleak; eta hizkuntzak, euskarak, hartu ditu lanaren azken 100 orriak, besteak beste. Lasarteri buruzko gainerako liburuetatik ateratako idatziek eta bat-bateko bertsoek osatu dute lana.

Zubizarretak adierazi eta Manuel Lasarterek berak baieztatu duenez, idazleari erabateko askatasuna utzi zion bertsolariak liburua idazteko eta gustura daude emaitzarekin. Idazlearen hitzetan, Manuel asko erakusten ditu lan honek: bertsolaria, kontalaria, behatzailea, plazagizona... eta denak erakusteko tarte egi-tea izan da beretzat lanik atsegina.

Bederatzigarrena esku artean

Jaun-andreok, nere bederatzigarren liburua zueri eskeintzera nijoakizute borondaterik onena jarrita, baiña liburu au ez da nik idatzia; nere lagun aundi batek idatzi du nere baimenarekin. Nere prosa lanak bertan agertzen dira, ez noski denak; ortarako liburu aundi bat bearko litzake ta. Nik len jarritako bertsoak ere irakurri al izango ditu bertsozale dan jende apalak, eta nik plazetan bat-batean kantatutako bertsoak ere bai.

MANUEL LASARTE | MANUEL LASARTE ITURRIA ONDAREKO AGURRA

AZAROAREN 21A IZANGO DA ESKARIAK EGITEKO AZKEN EGUNA

Baserri inguruak sustatzeko, *Erein* diru laguntzak abian

Euskal Autonomia Erkidegoko baserri inguruak sustatzeko eta garatzeko programak lau diru laguntza mota ditu. Azaroaren 21a da eskariak aurkezteko azken eguna.

Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak eta Itsasertzaren Garapenerako Zuzendaritzak baserri inguruak sustatzea eta garatzea helburu duen *Erein* izeneko diru laguntza programa jarri dute martxan.

Euskal Autonomi Erkidegoko baserri inguruko biztanleei zuzenduta dago programa eta lau laguntza mota eskaintzen ditu: baserri ingurua zaintzera eta bertako biztanleen bizi kalitatea hobetzera zuzendutakoak —era horretara, baserriarrei oinarriko hornikuntza zerbitzuak hobetzeko aukera ematen zaie—; enpresak sortu, handitu edota modernizatzeko laguntzak —jarduera ekonomikoetarako lurzorua zein jarduera horretarako beharrezkoak izan daitezkeen lokalak prestatzeko asmoak ere atal honetan sartzen dira—; lanpostuak sortzera zuzenduak —aurrez lanik eduki ez duten edo lana galdu duten pertsonak kontratatzea izango da kontuan hartuko dena. Horrez gain, nork bere kabuz jarduera sortzeko asmoa duenak ere, laguntza mota hau eskatzeko aukera izango du—; etxebizitzak egiteko edo berritzeko



Baserrietan bizi direnek aukera dute diru laguntzak jasotzeko.

KARKARA

Norberak bere kabuz edo erakunde publikoen edo elkarten bidez egin daiteke eskaera

diru laguntzak —etxebizitza berriak urbanizatu ahal izateko edota jada eraikita dau-

denak birgaitzeko erabili ahal izango da laguntzen azken atal hau. 2007tik 08ra bitarteko lanak ere jasotzen ditu.

IZENA EMATEA

Eskariak aurkezteko epea zabalik dago, dagoeneko eta azaroaren 21a izango da horretarako azken eguna. Norberak bere kabuz edo erakunde publikoen edo elkarten bidez egin daiteke eskaera. Informazio gehiago Orioko eta Aiako udaletan edo URKOMEn jaso daiteke.

LABUR

MUSIKA

Santa Zezilia

Danbolin musika eskolak Santa Zezilia eguna azaroaren 20an ospatuko du: 17:30ean, kalejira egingo dute herriko kaleetan eta 20:00etan kontzertua emango dute Bariko San Nikolas elizan. Kantuaz gain, txistua, esku-soinua, biolina, pianoa eta klarinetea entzungo dira.

HIRIGINTZA

Plaza berria

Udaletik esan digutenez, azaroarekin bukatuko dute kultur etxe atzeko plaza berria, baleari eskainitako irudiek iri edertutakoa. Azken erremateak bakarrik falta omen dira: igogailuko kristalak jarri—eguraldi lehorra behar dute horretarako—eta plazako lurra txukundu.

BERTSOLARITZA

Bertso eskola

Errikotxia elkarteak bertso eskola abian jartzeko ahalgina egin zuen urrian. Gaztetxoan talderik ez da sortu; baina helduena, berriz, bai. Parte hartu nahi dutenek oraindik badute aukera. Astelehenetan biltzen dira Iturbide 7ko lokalean, 22:22etan. Urte osorako prezioa 30 eurokoa da. Errikotxia taldeak adierazi digu edozeinek daukala taldean parte hartzea, nahiz bertsoan ezer gutxi jakin.



Agentea: Oloriaga

TORREALDAY
aholkularitza

Berezitasunak:

- ✓ Enpresa berriak sortzeko diru-laguntzen kudeaketa. Txekin.
- ✓ Aseguru artekularitza.
- ✓ Finken administrazioa.

Bazkalde 4, beheak. Tel: 943 13 37 20 Fax: 943 83 52 93 www.torrealday.com e-mail: oloriaga@oloriaga.com



RAMIRO
argazkiak

www.fotoramiro.com

fotoramiro@fotoramiro.com

610 69 76 68
943 83 10 48

ASTEBURU HONETAN ERE JAI GIROAN IZANGO DA AUZOA

Kontzertu handia izango da ostiralean Ortzaika auzoan

San Martin zaindariaren omenez festa giro ederrean dabilta Ortzaikako auzotarrak hilaren 6az geroztik. Beste asteburua ere badute oraindik aurretik.

San Martin jaietako txupinazoa—txupitonazoa, aurten—azaroaren 7an izan bazen ere, bezperatik hasi ziren Ortzaikako auzokideak bailarako zaindariaren omenez festak ospatzen. Izan ere, mutil ardoko afaria izan zuten hilaren 6an. Dozena inguru lagun bildu zen, elkarrekin afaldu eta ondo pasatzeko.

Ostiralean, pregoia eta gero hasi ziren festak ofizialki. Mus txapelketa izan zen ondoren. 30 bikote aritu ziren lehia eta Aiako Antxon eta Antonio izan ziren onenak (besteak beste, txerrikume bana eramane zuten etxera). Larunbatean, berriz, 80 bat bertozale bildu ziren Oriden jatetxean Egaña eta Amurizaren bertsoak entzuteko.

Urtero bezala, San Martin jaietako ikurrina izan zen jokoa igandean. Bi ontzik hartu zuten parte estropadan eta jende ugari izan zen begira.

San Martin egunean, berriz, meza izan zuten San Martin baselizan eta, ondoren, izatekoak ziren sagar biltzea eta toka txapelketa bertan behera geratu ziren, eguraldi txarra zela eta.



Sagar biltzea eta toka txapelketa bertan behera utzita, auzotarrak hamaiketakoak egiteko bildu ziren.

KARKARA

ASTEBURU HONETAN

Asteburu honetan ere izango da San Martin festak nola ospatua. Azaroaren 14an, apustu egunean, musika kontzertua eskainiko dute Kenon, Azkaiter Pelox Band, Burux Lee eta Esne Beltza taldeek, 22:00etan hasita.

Hilaren 15ean, 06:00etan hasiko dira oilasko biltzen. 22:00etan, berriz, bertso saioa izango da eta gauerdetik aurrera Patxi Musika Taldeak dantzatzeko doinuak joko ditu.

Igandean herri kirolak eta

giza proba izango dira. *Heldu!* taldea, Igeldoko gizonak eta Pello Saizarren zaldia lehiatuko dira 12:00etatik aurrera, onena zein den ikusteko. Eguerdian, bailarako bazkaria egingo dute auzotarrek, bertsolari eta trikitilariekin lagunduta.

Azaroaren 21ean agurtuko dira, datorren urtera arte, Ortzaikako sanmartinak. *Goierriarrak* trikitilariak alaitutako oilasko afaria izango da aurtengo festa programako azken ekitaldia.

Asteburu honetan ere izango da San Martin festak nola ospatu: musika, kirola, dantza, bertsoak, oilasko biltzea, bazkaria... Datorren urtera arte agur esango dute 21ean

Lizaso dekorazioa

Eusko Gudari, 48
Tel: 943 83 09 74 Fax: 943 83 09 74

Pinturak ELKAR

pintura eta paperatze lanak zoru leunketa

Aberriak 100
943 83 08 45 / 619 80 23 31
ZARAUTZ

Dorromoro Denda

1961etik zure ondoan

AUKERA HANDIAGOA FRUTATEGIAN

Tel 943 83 09 37



Iazko edizioan bezala, aurten ere bigarren izan da Kamel Donostiako bulebarreko helmugan.

KARKARA

ORIOKO LASTERKETAN, BERRIZ, FRANCIS KOMUK IRABAZI ZUEN

Behobia-Donostian bigarren egin zuen Zianik

Azaroaren lehen hamabostaldian, bi lasterketa izan ditugu herrian protagonista: Orioko herri krosa, 1ean eta Donostia-Behobia, 9an.

Kamel Zianik ezin izan zuen azaroaren 9an, Behobia-Donostia lasterketako txapela Oriora ekarri. Ordu bete, 2 minutu eta 54 segundo behar izan zituen, 20 kilometro pasatxoak egin eta bulebarreko helmugara iristeko, 2. urtez jarraian zilarrezko domina lortuz. Iaz bezala, Txema Martinez madrildarra izan zen aurrea hartu zion bakarra. Bi minutuko aldea atera zion.

ORIOARRAK ETA AIARRAK
Helmugara iritsi ziren ia 14.000 korrikalarien artean 16 aiar eta 60 oriotar ziren. Zianiren ondoren, Aitor Rubio izan zen hurrengo oriotarra, 01:14:48ko denborarekin. Aiarren arte-

an Mikel Azkue izan zen lasterketa bukatu zuen lehena, 01:25:15ko denborarekin.

Emakumezkoetan, Idoia San Sebastian —01:34:35— eta Olatz Aizpurua —01:32:51— izan ziren aurreneko oriotarra eta aiarra, hurrenez hurren.

Joxean Iglesiasek, berriz, 8. amaitu zuen ezinduen kategoriako lasterketa eta orain arteko bere denborarik onena egin zuen: 01:03:50.

Aipatzekoa da Ainhoa Imazek eta Jone Arrutik egindako lasterketa. Junior kategorian 4. izan zen Imaz eta aurrena Arruti promesetan.

ORIOKO 3. HERRI KROSA

Francis Komu eta Tabitha Wambui senar-emazte keniarrak nagusi izan ziren Orioko 3. herri krolean. Komu izan zen 11,4 kilometroak egiten lehena, eta lasterketako marka berria ezarri zuen: 35 minu-

Donostiako bulebarreko helmugara iritsi ziren ia 14.000 korrikalarien artean 16 aiar eta 60 oriotar ziren

tu eta 36 segundo. Hossain Kaanache 2. saikatuari ia 51 segundoko aldea atera zion. Jose Antonio Blancok osatu zuen gizonezkoen podiuma.

Emakumezkoetan, Wambui 43 minutu eta 9 segundo behar izan zituen lasterketa bukatzeko. Amaia Ostolaza eta Jaione Galdos izan ziren, 2. eta 3., hurrenez hurren.

Helduen lasterketaren ondoren, 16 urtez azpikoen txanda izan zen; 50 bat haurrek hartu zuten parte.

LABUR

FRONTENISA

Txapelketa

Orioko gazte koadrila batek frontenis txapelketa antolatu du sanikolasetarako. LH6tik DBH4ra bitarteko gazteei zuzenduta, azaroaren 17an jokatuko dute estraineko partida, Orioko pilotalekuan.

Interesatuak Ametsa gaztelekuan eman behar dute izena hilaren 14a bitartean eta bikoteko 3 euro ordaindu behar dituzte.

JUDO

Blanco 3. Suedian

Oiana Blanco judokak brontzezko domina ekarri zuen Suediako Txapelketa irekitik azaroaren 1ean. Justyna Kojro, Ann Shiraiishi eta Natalie Lafoni irabaztea lortu bazuen ere, Europako sailkapenean hirugarren postuan dagoen Eva Csernoviczky hungariarraren aurka galdu zuen Blancok.

Datorren borroka azaroaren 15ean izango ditu, Xabier Urkizu eta Ibai Peñarekin batera, Brivieskako —Espainia— Alejandro Blanco txapelketa hartuko baitu parte.

ARRAUNA

Denboraldi hasiera

Azaroaren lehen astelehenean hasi zituzten 2008-09 denboraldirako entrenamendu saioak Orioko Arraun Elkarteko senior kategoriako kirolariek. Klubetik adierazi dutenez, aurreko denboraldiko mutil gehienek taldean jarraituko dute; baita teknikari eta medikuek ere.

Bestalde, interesa duten neska-mutlei bertaratzeko gonbita egin die elkarteak.

SURFA

Agote Billabong XXL en

Ibon Amatriain surflari zarauztarra Billabong XXL 2009 sarietarako izendatu dute, urteko olaturik handienaren atalean. Galizia-ko *Shrodinger's Left*-en hartutako olatuari esker lortu du izendapena eta oraingoan ere, Mikel Agote izan zuen alboan. Izan ere, bi surflariak txandaka ibiltzen dira olatu gainean, horrelakoak hartzeko bietako batek motorrez lagundu behar izaten baitio besteari.

IKUSTEKO

Agotek adierazi duenez, oraindik denbora asko falta da sari banaketarako eta ordurako surflariak beste hainbat olatu handi eta on hartuko dituztela uste du. Beraz, hautagaiak oraindik alda ditezkeelakoan dago. Hala ere, oraingoz, Amatriainek hartutakoa saritua izan daitekeen artean dago.



Argazkia: Cedric Barroso

HARMAILATIK

Laster arte, noski

Zerbait berezia, berezia benetan... hori da niretzat orain hastera doan garaia. Aurretik bizi izan dudaren aldean oso ezberdina; baina, aldi berean, ezberdina delako aukeratu dut. Zergatik? Lagun batek hala esan zidan: zeri egin nahi diozu ihes? Beste batek... Hasieran, ezezkoa erantzuten nien, keinu unibertsala. Baina, egia esan, ihes noa; ez dakit zeren ihes, baina, agian, zorionarekin badu zerikusia. Azken hitz potolo hori da denok behar eta bilatzen dugun zerbait. Nik uste potoloa dela hitz hori, askorentzat potoloegia eta askotan erregimenean jartzen dute, nahi gabe. Nik ez nuke horrelakorik egingo, jaten eta jaten ematen diot zorionari, handitu eta handitu dadin, horrela bakarrik jakin dezakegu zenbateko garrantzia duen gure bizitzan... guk uste baino handiagoa, seguru... askok existitzen denik ere ez dakite eta...

Gogo handiz hastera noa garai hau, gogo ikaragarri; normalean, egiten ditudan gauza (ia) guztiak horrela bizi ditut, intentsitate handiz. Baina hori bai, modu lasai eta pausatuta batean beti. Gogo gutxiarekin uzten dut hemen, berriz, *nire-nirea*; hau da, honekin lotzen nauen guztia... familia, lagunak, lankideak —azkenaldian, handia izan da beren presentzia eta garrantzia nire bizitzan—, aurkariak —atletismokoak, nik dakidala, ez ditut bestelakoak—, lagun asko eta asko,

HOSSAIN KANACHE
KORRIKALARIA

Gogo handiz hastera noa garai hau; normalean egiten ditudan gauza (ia) guztiak horrela bizi ditut, intentsitate handiz

Eskerrik asko guztiei zuen txaloengatik, nitaz gogoratzeagatik; ni beste herritar bat bezala ikusteagatik...

benetan zenbaezinak direnak, kantitatez eta kalitatez, eguneroko bide eta jardunak, ohiturak...

Trenera berandu eta korri-

ka egin behar... Noan tokian ez dut korrika egin beharko trenera iristeko, hiru minuturo ditut eta; hemen, berriz, ordu erdiro. Hori ote da hango eta hemengo ezberdintasunik handiena, han dena hamar aldiz hobe izango ote da? Ez dut uste, zaila izango da, behintzat...

Beste bizitza bat probatzera noa, hotza egiten duen herri batera, tulipanak famatuak diren leku batera, gazta eta dikeak famatuak dituen eta futboleko laranja kolorez jartzen duten lurralde batera, iparralderago dagoen herrira. Baita ere, *herri* hitzak, hemen ez bezala, beste zerbait gehiago adierazten duen leku batera, *rubio eta rubiak* —ilehoriak— gehiengo diren herri batera eta, batez ere, zoriontasuna dagoen herri batera; azken finean, zoriona bakoitzak barruan dauka eta zozzen lekura zozzela ere, zurekin eraman ohi duzu. Hori bai, lehendabizi, zorionsu izatea lortu behar duzu, hori gertatu dadin.

Eskerrik asko guztiei zuen txaloengatik, eskerrik asko benetan; eskerrik asko nitaz gogoratzeagatik; eskerrik asko ni beste herritar bat bezala ikusteagatik —azken finean, ez al naiz ba beste herritar bat?—, eta eskerrik asko nire iritzi hau irakurtzean zerbait berezia sentitzen duzuen guztioi; nik, behintzat, sentitu dut.

Eskerrik asko eta beste bat arte.

Salam/Agur.

taller mekanikoa

AUTO-LAN
C. B.



urratira joan gabe
talde berria
zure zerbitzura

Pelotari kalea, 5 ORIO

943 83 00 34

ESTHER EIZAGIRRE | ANTROPOLOGO SOZIALA

“Minbizia zen, baina gauza asko atera dizkiot, onak”

Beti zerbaiten bila ari zela kontatu digu Estherrek, oso ondo jakin gabe zeren atzetik zebilen. Baina bizitza zeharo aldatu zitzaion oso minbizi mota txarra zuela jakin zuenetik.

Nola bizi izan duzu gaitza?

Minbizia izan nuen aurreneko aldian konturatu nintzen desgrazia bat edo aukera bat bezala bizi nezakeela. Ez zen nik aukeratutako zerbait, zoritxarreko gaitza zen, baina gauza on asko atera dizkiot. Besteak beste, Mexikon izan naiz lanean eta oso gustura, gainera. Baina, oporretan etorrita, jakin nuen minbizi mota oso txarra nuela eta hemen gelditu nintzen. Erreferentzia finkoak behar nituen: familia, hotza, euria, mendiak... sus-traiak, azken finean.

Asko aldatu al zaizu bizitzako filosofia?

Orain konszienteago naiz: daukadanaz, eta galdu dezakedanaz. Gizakiok oso gutxi aldatzen gara, baina lehen intentsitatez bizitzen nuen dena, dena konpontzea nire esku balego bezala. Orain, berriz, ikasi dut bereizten zer den garrantzitsua eta zer ez.

Jendeak lagundu al dizu?

Familiari eskerrak eman nahi nizkioke, zutabe sendo bat izan direlako niretzat. Badakizu, oso tribu trinkoa osatzen dugu. Kezkak azaldu ziren, negar egingu genuen, baina ni ahul egon naizenean beti egon dira nire alboan, tinko. Hasieran, inork ez zuen ezer esan nahi, kalte egingo ote zidaten beldur ziren, baina oso garbi esan nien niretzat garrantzitsua zela hitz egitea. Ilobek eta Eiderrekizugarri lagundu didate, drama zenari drama kutsua kentzen.



Urte asko eta ahalik eta hoberen bizi nahi du Estherrek.

KARKARA

Orain konszienteago naiz: daukadanaz eta galdu dezakedanaz

Nolako gaixotasuna nuen esateko bildu nituen, eta ni hiltzerike zutela nahi esan zidaten, baina 10 minutura jolasen zeuden, naturaltasunez.

Lagun batzuk galdu ditut, ezin izan dutelako erantzun. Ez naiz disimuluarekin ibili kalean. Batzuk peluka jatzten dute, nolabait, gaixotasuna estaltzeko. Nik mezu garbia nuen: nire gaixotasunak tratamendu bat dauka eta itxu-

Nire ilobak hazten ikusi nahi ditut, Eiderrekin txangoak egin nahi ditut...

ra hau ematen dit. Eta jende-ari hori deserosoa egiten zaio. Orokorrean, ez dakigu egoera gogorrei aurre egiten.

Modu diferentean gozaten duzu bizitza?

Paseo bat ematea, edo lagunekin kafe bat hartzea, amakpatata tortilla egin didala ikustea... Lehen ere horiekin disfrutatzen nuen, baina ez nintzen oso konsziente.

Asko sufritu dut eta bestelako momentuak ere izan ditudala eta baditudala jakiteko balio izan dit. Minbizia gainditzeko prozesuan ere ondo pasa dut batzuetan. Barrez lehertzen bukatu nuen azkazelak eta hortzak ereriko zitzaizkidala esatean ilobek izandako erreakzioarengatik. *A, zen nazka!* esaten zidaten ilobek. *Burusoil ibiliko zara kalean? Gurekin ez! Jantzi peluka...* Gero, kalean berak ibili ziren gehien nirekin, esanez bezala: *Gu zurekin gabiltza, kontuz, inork ezer esan!* Ez nuen indarririk, haiek jartzen zuten. Espero ez nuen jendearen hurbiltasuna, maitasuna... jaso ditut, bakoitzak ahal zuen moduan, eta zoriontsua naiz. Jende askok nik baino gauza gehiago dauzka, baina ez da konsziente eta ez dio ezertarako balio.

Zer nahi duzu eta zer ez?

Urte askoan ahalik eta ondoen bizi nahi dut. Hala ere, ez dago nire esku. Maite dudan jendea zoriontsu izatea eta nik haiekin konpartitzeko aukera izatea nahi dut: nire ilobak hazten ikusi nahi ditut, Eiderrekin txangoak egin...

Ez dut indarra eta energia merezi ez duen zerbaitetan galdu nahi. Duintasunez nahi dut bizi eta hil. Hainbesteko beldurra diogu heriotzari, prest gaudela edozein modutan bizitzeko. Nik ez. Noizbait sendabiderik gabeko egoeran aurkituko banintz, nahi nuke bai nik edo nire ingurukoek erabakia hartzea. Ez dut nahi bizi albokoari zer gertatzen zaion axola gabe. Ezta ere konturatu gabe nolako zortea dudana. Asko dut egiteko: gehiago jakin, sormenalanu eta, batez ere, sakondu ari nago bizitzeko gaitasuna, barruko bakea lortzeko.

AMETSGAINEKO ESKRITURETAN ALDAKETAK IZAN DIRA JABEEK JAKIN GABE

Etxeen eskriturak sinatzeko aukera zalantzan

Ametsgain kooperatibaren kide batzuk asteazkenean bertan sinatu behar zituzten etxeen eskriturak, baina asteartean jakin zuten aldaketak egin zirela paperetan, haiekin konsultatu gabe. Notarioarekin ari dira lanean, gaia argitzeko.

Kooperatibistek eskrituren zirriborroa bazeukaten, eta batzuk asteazkenean bertan notarioaren aurrean sinatu behar zuten. Baina azaroaren 11n, Caja de Navarrakok dokumentuari gainbegirada eman ziotenean, konturatu ziren aldaketak zeudela eskriturretan. Kooperatibistekin hitz egin zutenean konturatu ziren notarian aldaketak egin zirela haiek jakin gabe. Beraz, sinatu ordez, notarioarengana joan ziren gauzak argitzera: batetik, zergatik izan diren aldaketak eta, bestetik, zergatik ez zaien kooperatibistei abisatu.

Ezin izango dutela sinatu esan digu Iona Rekarte kooperatibaren lehendakariak: *Guztia argitu arte inork ezin izango du sinatu. Gaur (12, asteazkena) sinatu behar zirenak, gutxienez, ez dute aurrera joko, eta bihar eta datorren astean sinatu behar zutenek ere ez, aldaketak zeintzuk diren eta zertarako argitu eta guk onartu arte, onartzeokoak badira. Sinatzeak esan nahi du jarritakoa onartzen dugula. Beraz, ikusi ez ditugun aldaketak ezin ditugu onartu.*

ARAZOAK ARAZOEN GAIN
Oso prozesu luzea eta polemikoa izan da Ametsgain kooperatibaren etxeak egitekoa eta kooperatibistak ez daude batere gustura egindakoarekin. *Udalak etxeen kalifikazioa zehaztera behartu gintuen,*



Etxeak jabeen zain daude, erabat bukatuta.

KARKARA

Eskrituran egin diren aldaketak aztertu gabe, inork ezin izango du sinatu —Iona Rekarte

dio Rekartek, *justu gero egin-go den epaiketean erabaki behar dena. Udalak ez du berdin ikusten. Igor Iturain alkateak esan digu Ez dut gauza gehiago esateko. Epaitegietan dago eta epaileak esango du. Orain dela urte bete esan*

genien zein zen eskrituratzeko bidea. Beste bide bat hartu zuten eta urte bete berandua-gure bidera etorri dira, ez guk esan dugulako, erregistratzaileek eta notarioek esan dutelako baizik. Kooperatibistak ez daude batere ados: Eskrituratu ahal izan dira esaten dugun moduan, badakigu. Arazoa ez da legearena, Udalak horrela nahi izan delako baizik. Eskatzen dugun bakarra da hasieran adostutako baldintzak errespetatzea.

Baina badirudi arazo berriak daudela gaur eskriturrekin, eta prozesua etenda egongo da berriz horiek argitu bitartean.

LABUR

San Roman jaiak Altzolan

Azaroaren 16an, igandea, 11:30eko meza ondoren, hamaiketako izango da. Jarraian, bazkaria Elustondo anaiekin. Arratsaldean, berriz, txokolate jana izango da, eta afal ondoren erromeria.

Asteartean, 18an, meza eta hamaiketakoaren ondoren, Izer eta Alabierrek alaituko dute bazkaria, eta afal ondoren ere joko dute erromerian.

Inkesta Landabusen gainean

Inkesta orriak prestatu ditu Udalak Landabus zerbitzuen gaineko jendearen iritziak jasotzeko asmoz. Egun batean autobusean bertan daudenekin inkesta egingo bada ere, edozeinek har dezake parte kultur etxean dauden orriak betez gero.

Bestalde, Landabus proiektua garaile izan da Udalsarea 21 sarietan. Udalak saria jaso du *Eska-ripeko Garraio Publikoa: Landabus* ekimenagatik.

Final estua VII. Kintopekoan

Emozio handiko finala izan zen astelehenean Urrutia eta Lañe Aurrekoetxearen artean. Azkenean, Urrutiak irabazi zuen 55 plaza justu eginda. 54 plaza, zinta 1, 2 minutu eta 30 segundotan egin zuen besteak. Largarate izan zen hirugarrena 50 plaza egin ez.

Jauregi alokairuan

Jauregi lokala alokatzeko interesa duen edozeinek espedientea eta Baldintzen Plegua aztergai ditu udaletxean.

AIAKO LEIHOA

Nor elikatzen dugu?

Tribu bateko nagusi zaharrahizketan aritzen bilobekin bizitzari buruz, eta horrela esan zien: *Borroka handia daukat nire barrenean, bi otsoen artean. Bata da gaiztakeria, beldurra, haserrea, inbidia, mina, gorrotoa, diru gosea, harrokeria, kulpa... Bestea, berriz, bihotz ona, poza, itxaropena, lasaitasuna, apaltasuna, zintzotasuna, onginahia, lagunartea, enpatia... Borroka hori bera gertatzen ari da zuen barruan eta lur honetakogizaki guztien barrenean.*

Haurrak isilik eta pentsakor egon ziren minutu batez, eta, ondoren, batek aitonari galdetu zion:

—Eta zein otsokirabaziko du?

—Elikatzen duzun huraxek —erantzun zion aitonak.

Gizakiok gaitasun kognitiboa daukagu informazioa prozesatu eta bizitza *betaurreko positibo* edo *betaurreko negatiboekin* ikusteko eta otso bietako bat elikatzeke.

Bizitza ikuspegi ezkorrekin ikus dezakegu... eta horrek besteenganako mesfidantzara eramaten gaitu, geure barrenean ezkutatu eta inguruan daukagunaz goza ezinera. Edo modu baikorrez

begira dezakegu, moldatzeko daukagun gaitasunean itxaropentsu eta une ezberdinetan gozatuz. Gizakiok jokabide gogorrenak izan ditzakegu besteekiko, baina baita jarrera eskuzabala, altruista eta lagunkidea ere.

Euskal Herrian arbasoengandik jasotako ohitura da auzolana bultzatzea, eta sistema horri esker baserritarren arteko elkarlaguntza

zegoen, norbaitek uzta txarra edo ezbeharren bat izaten zuenean, lagunkidetasun hori nolabait instituzionalizatuta zegoen.

Gaur egungo ekonomia globalean, arrakasta besteen gaintetik pasatuz lortzen den horretan eta edukitzea izatea baino gehiago den horretan, batuketa 0 duen jokoan dago sartua: batekirabazteko, besteak galdu behar du (nik 1 irabazten dut besteak 1 galtzen duelako: +1-1=0). Eta otso batek bestea jaten duela dirudien arren, zorionez oraindik *otso onak* geratzen dira, edo hori pentsatu behar dugu eta gainontzeko gizakiak duten noblezia sustatu: errespetuz, altruismoz eta irribarre batekin...

JUAN PEDRO FERNANDEZ OSA

Gizakiok jokabide gogorrenak izan ditzakegu besteekiko, baina baita jarrera eskuzabala eta lagunkidea ere

Euskal Herrian arbasoengandik jasotako ohitura da auzolana, lagunkidetasuna eta elkarlaguntza bultzatzea

TXOKOAK ETA JENDEA



Andatza eskolako haurrak

Aurreko astean Andatza eskolakoak bisitara etorri ziren kultur etxera, eta hemen ditugu denak goiz erdia bertako liburutegian pasa ondoren. Goitik hasita, honako hauek ditugu: Amaia Kerexeta irakaslea, Ander Lasa, Eneko Itxaso, Ixiar Gorostidi, Joseba Uzkudun, Imanol Sarasola, Edurne Berridi irakaslea, Gaizka Iruretagoiena eta Ane Sarasola. Behean: Aimar Iruretagoiena, Eñaut Izeta, Iker Amilibia, Unai Uzkudun, Oier Izeta, Maialen Gorostidi, Leire Iruretagoiena eta Iñaki Urbieta.

Mutiozabal ontziolak Orioko itsasontzien arkitektura-altxor ugari gorde izan ditu urte askotan. Plano sorta hura gogora ekarrita, bilduma horren garrantziaz jardun gara hizketan J. M. Peronarekin, Gipuzkoako Ozeanografia Elkartearen 50. urteurrena ospatzeko egin den 12. Itsasontzi Erakusketan.

MIKEL ARANZABAL

Zuk aurkitu zenuen Mutiozabalontziolako plano bilduma. Zein garrantzia du?

Askok ez du jakingo, baina Arin y Embili hasiera Mutiozabalek eman zion. Miguel Antonio Mutiozabal itsasontzigintzan Aginagan aritzen zen, Uriberriko gradatan, 1850. urte inguruan, eta, salmentak urritu zirenean, Oriora pasa ziren. Toki askotan jardun ondoren, gaur egungo Arin y Embileko lurra erosi eta bertan hasi ziren ontzi handiak eta altzariak egiten. Aurretik ere, Arratola izeneko ontziola hor zegoen kokatuta. Gero, arindarrak elkartu ziren, sozio kapitalista gisa, eta Mutiozabal y Arin izatera pasa zen lantegia. Mutiozabaldarren ondorengoen altzarigintzan jarraitu nahi ez zutenek, haien zatia saldu egin zuten eta enbeldarrek erosi. Horregatik da gaur egun Arin y Embil. Kasualitatea, gainera, Miguel Antonio Mutiozabalen alaba zaharre-



KARKARA

JESUSMARI PERONA | EREDUGILEA

Mutiozabal: Orioko itsasontzigintzaren oroimenen kutxa

na, Andreita, enbildarren seme batekin ezkondu zen, Enrikerekin. Nik ezagutu nituen. Jorge Oteiza ere, enbildarra izanik, askotan bertarutzen. Mutiozabaldarrek gure etxean sarrera handia izan dute beti eta Arin y Embilenean hasi nintzen lanean ni.

Arin y Embil erre zen urtean, 1969an, sugarretatik oraindik balio zuten gauzak ateratzen eta horientzat ganbaran lekua egiten jardun ginen lanean. Orduan izan nuen plano horien berri. Bertatik hartu eta orain museo Ozeanografikan daude. Oso egoera txarrean zeuden itokien-gatik-eta. Horiek denak zaharberritu eta sailkatuta daude orain. Norbaitek bultzada bat eman eta nazioartean zabalteaz merezi du, Orion zer nolako kalitateko ontziak eta lan egiteko modua zegoen ezagutarazteko. Xabier Agotek, 1998an Amerietatik trainerua eskala handian egin zuenak, esan zuen: *Ez dut ezagutzen, European behintzat ez, ontzi txikien horrelako beste kolektzioirik. Eta ez daukat ezaguerarik inon ote dagoenik ere.*

Horren garrantzitsuak izanik ere, ez duzue lortu ezagutzera ematea? Unibertsitatearen batean edo...

Hori bide bat litzateke, baina GOE fundazioak bultzatu behar du. Horiek, ordea, Aquariumeko arrainei gehiago begiratzen diete, diru gehiago ematen baitu. Baina hor altxor handia dago. Norbaitek bultzatuz gero, bertan agertzen den euskal ontzi-arkitektura ezagutzera emateko modukoa da.

Eredugilea zaren neurrian, bilduma horretako planoen ingongo zenituen maketak, ezta?

Batzuk bai. Azkena egin dudana eredu, *Patxi Santa Ana*, Mutiozabaleko jatorrizko planoen kopia batetik egin nuen. *Patxi Santa Ana* hori 1887an Orion egindako arrantzarako trainerua zen.

Patxi Santa Ana 1887koa

bada, 1901ean balea harra-patzeko erabili zituztenak bezalakoa al da?

1901. urtean, oriotarrek balea harra-patu zutenean, traineruekin joan ziren, bai, baina garai horretarako galdua zegoen bale arrantza, balerik ez zegoelako. Hura kasualitatea izan zen, noiz-behinka, bat edo beste agertzen zen eta denak joaten ziren haren bila. Eta hori egiteko, eskura zutena hartu behar; antxoatarako eta sardinetarako zituzten traineruak. Berez, bale arrantzarako erabiltzen ziren txalupak txikiagoak ziren, ballenerak, XIV. mendekoak. Traineru horiek, beraz, kasualitatez erabili zituzten. Ez ninduke baterre harrituko *Patxi Santa Ana* trainerua Orioko balea harra-patu zutenean tartean izateak; izan ere, dokumentazioa balearen bertsoetatik jaso izan dugu, eta horietan ez da traineruen izenik aipatzen.

Pentsatu al duzu inoiz hala-ko trainerurik eskala errealean egitea?

1:1 eskalan egiteko bi faktore konkretu behar dira: sasoi eta gaztetasuna. Lehen eginak ditut. Orioko arraun klubarentzat Antxola trainerua egiteko Arin y Embilen liberatua geratu nintzen, hura bukatu bitartean. Asko ikasi nuen Antxola arotzaren ondoren lan egiten eta niretzat eskola izan zen.

Beraz, afizioa gaztetatik duzu.

Mutil koskorra nintzenetik. Behin, irailean estropadara joan ginen Donostiara, gurasoak eta hiru anaiok. Estropada ikusi, bazkaldu eta gero Aquariuma ikustera sartu ginen. Goiko pisura igo eta Joakin Cortesek, Orioko alkate izandakoak, egindako maketak ikusitakoan txundituta gelditu nintzen; arrainekin baino gehiago. Orduan esan nion nire buruari: *Donostiara etortzen haizen bakoitzean Aquariumera joan behar duk.* Eta orduan Donostiara hurbiltzea ez zen gaur bezain erraza. Arraunlari nintzela ere ez nuen inoiz hutsik egin.



Eta orain maisu titulua ere baduzu.

1999an Bartzelonan izan zen Espainiako modelismo txapelketan Madrilan dagoen galeoiarekin, *Nuestra señora de la Concepción y de las Ánimas*ekin maisu izendatu eta urrezko domina eman zidaten.

Nik ez nuen horrelakorik espero, baina epaimahaikoek noa ikusi zutenean, txundituta geratu ziren eta lehiaketatik kanpo utzi zuten, bada ezpada.

Urte baten buruan, Europako txapelketara kamioika maketa eraman genuen, gure ontzi onenekin. Urrezko



KARKARA

domina ekarri nuen galeoia-ekin eta baita urrezko domina ere, bajararekin, bere kate-gorian.

Orion dauden moduko itsa-sontziak ere egin al dituzu?

Zurezkoak izan diren arte-koak bai. Reina Maria, San Antonio, Tubal... Beti San Jua-

nen maketa, esaterako, Espainiako Sofia erreginarenen eskuetan dago.

Diputazioak Sofia erreginari harrera egin zion Aspacoko lehendakari modura eta, orduan ere, Ozeanografikako saltsan nenbilen. Ezer oparitzekorik ez zutela eta Donostia eta arrantza munduko zer-

AURKIKUNTZA

“Arin y Embil erre zenean izan nuen Mutiozabalen plano bildumaren berri, bertatik hartu eta orain museo Ozeanografikoan daude. Oso egoera txarrean zeuden itokinengatik-eta; horiek denak zaharberritu eta sailkatuta daude orain. Hor altxor handia dago.”

BILDUMA EZAGUTARAZI

“Soziedade Ozeanografikoko elkartekoek Aquariumeko arrainei gehiago begiratzen diete bestelako altxorrei baino, diru gehiago ematen baitu.”

ORIKO BALEA

“Ez ninduke batere harrituko *Patxi Santa Ana* trainerua Orioko balea harrapatu zutenen artean izateak, izan ere, dokumentazioa balearen bertsoetatik jaso izan dugu, eta horietan ez da traineruen izenik aipatzen.”

TXAPELKETAK

“Espainiako txapelketan epaimahaikoek naoa ikusi zutenean txundituta geratu ziren eta lehiaketatik kanpo utzi zuten, badaezpada. Urte baten buruan, Europako txapelketatik urrezko domina ekarri nuen galeoia-ekin eta baita urrezko domina ere bajararekin.”

BITXIKERIA

“Orioko arrantza-ontzien maketak egin izan ditut; Reina Maria, San Antonio, Tubal... esaterako, Beti San Juanen maketa Espainiako Sofia erreginarenen eskuetan dago.”

bait ematea polita izango zela otu zitzaien. Gure taldeko idazkaria nire etxera etorri eta Beti San Juan txuria begiz jo zuen. *Hauxe!* esan zuen. Nik ezin ezetz esan. Pixka bat txukundu nuen, ordaindu zidaten eta Espainiako erreginak eraman zuen Gipuzkoako herritarren opari gisa.

Urtero maketa bat egiteko helburua omen duzu. Nola doa asmoa?

Konpromiso hori ezkon-dutakoan hartu nuen. 32 urte pasa dira harrezkero, eta bat ez, urtero bat baino gehiago egiten ditut. Jarritako helburua hiru edo lau bider handitu dudala ere uste dut.

INAXIO SARASUA, JUAN RAMON EIZAGIRRE ETA
INAXIO ETXEBERRIA | MODELISTAK

Ontzi txikiak egiteko artea

Gipuzkoako Ozeanografia Elkartearen erakusketan beste hiru oriotarren lanak ere ikusgai izan dira. Berengana jo dugu modelismoa nola bizi duten jakiteko.

Nondik datorkizue ontzi txikiak egiteko afizioa?

I. S.: Mutil koskorretan ere egiten genituen pinu azalarekin eta labanarekin. 83an egin nuen nik lehen maketa. Harrezkero, bada, ez dakit zenbat egingo nituen, doze-na erdi bat edo.

Asko ere ez ditut egin.

I. E.: 83an edo, Bartzelonako Itsasontzi ferira joan ginen, eta han *kit* batzuk ikusi genituen salgai. Inaxiok esan zidan: *Hartzak!* Kasu egin eta etxean eduki nuen geldirik bi urtez, ausartzen ez nintzelako. Gero, behin horrela sukaldean hasi eta... Hura izan zen nire lehen maketa, *Harvey* ontzia. Gero beste mordoska bat ere egin nuen, eta, azkenik, planoetara pasa nintzen.

Eta edadea ere nabari al da?

I. S.: Bai. Eskuak baldartzen joaten dira, nireak behintzat asko, eta azken bolada honean baldarrago ditut. Hauek, ordea, gazteak dira oraindik eta...

J. R. E.: Bai! Honentzat gu beti gazte. Ni *kite*kin aritzen naiz gehienbat. Toki txikia daukat lanerako. Badakizu, batzuk eskulanak egiten hasten dira, pintura edo marrazkiak egiten... Lagun bat etorri zitzaidan niri bapore bat zeukala esanez eta montatu nahi zuela. Hartu eta hari emateko eraiki nuen. Askori, hasteko, gehiegizkoa egiten zaie.

Baina nola? Hartu eta montatu?

J. R. E.: Neurri batean, bai; baina ez da horren erraza. *Kite*an materiala etortzen da, baina material hori norberak moldatu egin behar du; neurrian moztu, forma eman... ordu askotako lana da.

Baina erakusketetan ez al da beharrezkoa lan originalak izatea?

J. R. E.: Niri ez zidaten arazorik jarri. *Kite*tik egindako lan bat aurkeztu nuen, *La Bounty*, eta bestea, *Gure Ametza*, Orioko Villareal itsasontziaren kopia, planorik gabe argazki batetik ateratakoa, aliritzira kalkulatu.

I. E.: Lan handia egin zuen, gainera. Argazkitik ateratzeak badu meritua. Begi ona izanik, ordea, eskalak erabiltzen baldin badakizu, askoz lan zehatzagoa egiten da eta denbora erdian. Txinoetan salgai daudenetan begiz antzemanden da gauza asko ez daudela behar duten neurrian.

Zuekkonturatzen zarete, baina gaia ezagutzen ez dugunok...

J. R. E.: Ontzi osoa eskalan eginda ere, lau kanaberalodiegiz jartzen badituzu segituan nabaritzen da.

I. S.: Jose Ramon jarri beharra dugu eskalak eta planoak manejatzen.

Eskola falta du orduan?

I. S.: Ez da eskola falta,



Inaxio Sarasua



Juan Ramon Elizagirre



Inaxio Etxeberría

ohituren gorabehera da.

Pazientzia asko beharko da zaletasun horretarako. Denborarik ba al duzue?

J. R. E.: Hauek bai, jubilatuta baitaude, baina nik oheari kendu behar...

I. S.: Edo kaleari. Oheari baino gehiago, kaleari kendu behar zaio.

Eta Mutiozabalen planorik erabili al duzue inoiz?

I. S.: Lehen *Lancha Calera* egin nuen eta, orain, *Patxi Santa Ana* egiten ari naiz, Jesus Mari Peronak erabili zuen plano berarekin.

Txapelketaren batean aritu zarete?

I. E.: Ez. Gu ez. Kontuhorietan Perona jarduten da.

I. S.: Perona maisua da.

J. R. E.: Maisuen artean maisua.

I. E.: Txapelketetan ez, baina erakusketetan parte hartu izan dugu: Donostian, Zumaian...

Herrian ba al da modelista gehiago?

I. S.: Orain urte batzuk Orion egin genuen erakusketan bat, eta herrian eredu gile asko dagoela ohartu ginen. 17 herritarren lanak aurkez-



tu ziren, eta batzuek lan bat baino gehiago ere erakutsi zuten.

Probatu al duzue inoiz bainu ontzian flotatzen duten?

I. E.: Ez. Akaso batzuk las-tratuz gero ez lirateke hondora joango. Kabinak pisu handiagoa du kaskoak baino, eta albo baterantz eroriko lirateke. Zuk (Sarasuari) ez al zenuen proga egin?

I. S.: Atuneroarekin igoal egingo nuen, baina guk erabiltzen dugun kola urarekin desegiten da.

Material bereziak al dira?

Diru aldetik?

I. E.: Berez ez da garestia. Letoia eta egurra dira material nagusiak.

I. S.: Gaur egun ez dago ezer merke.

J. R. E.: Egurrak, esaterako, ona behar du izan. Lan txukuna egin nahi bada, ezin da diruari begira egon. Kristalezko kutxak ere balio du berea.

Ontziak zuentzat egiten dituzue ala oparitzeko?

I. E.: Etxeantokirik ez dago denak gordetzeko eta...

J. R. E.: Normalean oparitu egiten ditugu.

Noiz ikusten duzue lana bukatuta?

I. E.: Txapela jarritakoan.

J. R. E.: Bai. Kristalezko kutxan sartzerakoan; bestela, beti badu zerbaiten falta.

I. S.: Begira jartzen zara eta, hemen falta du, eta hemen ere bai.

J. R. E.: Gainera, txapela ez badiozu jartzen, hautsez bete eta desegin egiten da.

Ozeanografia elkarteko kideak zarete?

J. R. E.: Bi hauek, bai. Ni ez, ordea.

I. S.: Gu zenbat urte da sartu ginela, sei bat?

I. E.: Zortzi bat, edo. Jubilatatu ginenean.

Afizio sakonetik bizi duzuela nabaria da.

I. S.: Niretzat maketa bakoitza erronka bat da.

J. R. E.: Niri ere denbora ikaragarri azkar pasatzen zait, konturatu gabe.

I. E.: Gauza ederra da, arratsaldean une batez maketari zerbait egiten jartzea, eta, ohartzeko, emaztea sukaldetik deika izatea; konturatzeko, zortziak jota, afaltzeko ordua.

I. S.: Niri pare bat aldiz aforia erre ere bai.

ADARRETATIK HELDUTA

Musicaddiction

A spaldian ez bezalako kontzertu zoragarri batetik nator orain-txe; guztiz hunkituta utzi nau.

Orain dela bi egun arte ez nuen taldearen izenik inoiz entzun, baina Donostian jotzen zutela ikusi nuen egunkarian eta internetera jo nuen informazio bila. Beren myspace gunean kanta pare bat entzun, wikipedian taldearen gain jakin, youtuben zuzeneko interesgarri bat ikusi eta hipersonican kritika oso onak dituztela baieztatu ostean, sarrera erosi nuen interneten bertan. Merezi izan du, bai horixe! Laukotearen web orrian musu truke jaitsi daiteke mp3an. Hala egin dut Andonik ere izan dezan; ea hurrengoan elkarrekin joaten garen kontzertura.

Badirudi teknologia berriek —bereziki, internetek— musika zabaltzeko bideak guztiz aldatu dituztela. Formatu digitalari esker, digeritu dezakeguna baino musika gehiagora dugu sarbide azkar eta merkea. Eskaintzen dituen abantailak asko eta onak dira, baina horiekin ezkondata doa bere moralitatea dudan jarri duen kontra handia ere: artxi-boen ofizialtasuna. Inoiz baino errazagoa da formatu horren kopiaketa egitea eta oso era errazean eta batere kalitate galararik gabe, gainera.

Dirudienez, ez gaude prest disko batek duen pre-



JOSEBA BRIT
KANTARI KOSMOPOLITA

Baina egiazko piratak, musikarien kontura sekulako dirutzak egin dituztenak, ez al dira diskoetxeak izan?

Interneten erabilera okerrak musika akabatu lezake; baina erabilera zuzenak sekulako bultzada emango lioke

zioa ordaintzeko eta emule-distribuzioaren aldeko apostua egin dugu. Egun, ez du top-manta izeneko mafia

batek pirateatzen, guk baik, eta horrek, musikari batzuk sutu egin ditu, antza denez.

Baina egiazko piratak, musikarien kontura sekulako dirutzak egin dituztenak, ez al dira diskoetxeak berak izan? Hori aldarrikatzen zen-bait musikarik diskoetxeekin zituzten kontratuak hautsi dituzte eta beren kantak sarean jarri prezio duin batean. Eragotzi nahi dutena da beren kantak konposatuak izan direnerako ez beste helburu baterako erabiltzea.

Hemen desberdindu behar dira, noski, musikaren kontura bizi nahi dutenak eta musika egin eta benetan jendeari zabaldu nahi diotenak.

Kontsumitzaile bezala, gure rola errealitate hau onartzea da: musika guregana era puroago batean heldu dadin, badirela talde edo bakarlarri batzuk, beren diskoetxeekin eten, beren gastuak bereganatu eta bitartekariak ezabatu dituztenak.

Aldaketa bat egin behar da industria honen inguruan. Horretaz konsziente izan behar dugu eta erabaki bat hartu artista horiei lagundu nahi diegun edo bizkarra emango diegun. Internetek sekulako aukerak eskaintzen dizkigu bai musikariei, baita entzuleei ere. Jakina, erabilera okerrak musika akabatu lezake, baina ziur nago erabilera zuzen batek sekulako bultzada emango liokeela.

NIRE HONETAN

Jendea isilik...

Zalapartatsua izaten ziren karkara.com-eko bisitari ugariak. Garrak eta txinpartak ateratzen ziren pantailatik, edozein gai zela-eta, jendeak erakusten zuen gauzak esateko grinarekin. Berotasunak eraginda izango zen, noski, eta parte hartzaile askok ez zuen inolako erreparorik izaten arrazoi txarrekin eta irainekin komentarioak egiteko. Horretarako hizkuntza ere tamainakoa izaten zen: baldarra eta traketsa, sexista eta arrunkeiaz bete. Nork bere buruari neuririk jarri nahi ez, eta komunikatzeko sortutako atarira hurbiltzen zenari neuririk gabeko egonezina sortzen zitzaion askotan: gehiegitan. Nor zen nor ezin jakin eta moztorra atzean, jakina, harroko.

Baina aldatu dira arauak eta bat-batean jendea isilik geratu da.

Sinistuta nago lehen ibiltzen zen jendeari ez zaiola esatekoa agortu, ez dela ahitu kolpean hain etorri emankorra. Sinistuta nago denbora pixka bat hartu dutela ideiak ordenatu, arazoibideak ongi hautatu, eta hitz eder eta egokiak aukeratu eta gero, hortxe izango ditugula berriz ere gure karkaran hitzatu eta berritsu, besteak gogaitu gabe.

Zain gaude.

ANA G. DE TXABARRI

Orioko Ogia

ORIOGI

OPIL OKINDEGIA
Frontoi ondoan
Ifnoa: 943 83 01 89

PERTSIANAK

AKO MAZ

Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

18.933.29.01 Nazkorta 600 70 92 77

SOLOZABAL
autoeskola

Eusko Gudari, 30-1. ez
telefon: 943 83 08 12

MOILA BAZTERRETIK

Neka-neka eginda



GARBIÑE MATEROLA

Lanean hamaiketako garaian okurritu zitzaizdan botatzea: *Atzo korrika itea junitzan!* Txalo zaparradarik ez, baina zapuztu ninduen galdera sorta luzea jaso nuen erantzuntzat: *Zenbat kilometro? Zenbat minu-*

tu? Zenbat bihotz taupada? Zur eta lur geratu ziren korrika egitera joan ginenotako inork ordularirik ez dugula jantzen jakitean. Are eta gehiago momentu hori elkarrigeguneko gure kronikatxo egiteko erabili ohi dugula gaineratu nuenean.

Hitz egitea da korrikarako abiadura egokia aukeratzeko teknologiarik onena!

Beste behin, lagun batzuei asteburuaren berri ematera koan, mendi buelta ederra egin genuela azaldu nien nik. Beti bezala galdu eta bide-marken interpretazio berri-zaile bat asmatu genuela —gu beti esploradore!—; baina galanki eta gogoz egin genuela barre. Berriz ere galdera zaparrada: *Zenbat, zenbat, zenbat?* Inor ez zuen galdetu barrez lehertarazi gin-

tuen pasarteaz...

Nazka-nazka eginda nauka kirolzale espezie berri honek. Zoritxarrez, egunetik egunera pertsona gehiago dago talde horretan bazkide izateko erreguka. Aberats berriak dirudite, lagunartean beren azainaz jardutean bakarrik gozaten dutela iruditzen zait askotan. Dena dute apustua, dena da zein baino zein gehiago ibili beharra! Ez ote dute onartuko badela munduan, berek ez bezala, kirola gustuko dutelako egiten duen pertsonarik ere? Noizbait konturatuko ote dira kirola ez dela marka eta ezta zerbaki hutsa ere. Batzuentzat garrantzitsuagoa baita *zenbat* galderari baino *nola* galderari erantzutea.

A! Psikologoak nire arazok onartzeko biderik onena

Hitz egitea da korrikarako abiadura egokia aukeratzeko teknologiarik onena!

Kirolzalea izan banaiz, baina inoiz ez dut Behobiarik egin

publikoki aitortzea dela esandit eta hortxe nire aitorten xumea: kirolzalea izan banaiz, baina inoiz ez dut Behobiarik egin. Jainko potoloak bere altzoan hartu nazala!

adarkitegia
ANTILLA
jateleku

Albaniako kafea - TEL: 943 83 01 04

Gabon
TABERNA
plater konbinatuak eta pintxoak

Tfnoa: 943 83 06 03

Goizeko
KAFETEGIA

943 83 28 55

Aita Leizola, 33 behean - ORIO
Autobus parada ondoan

Gure Txoko
Arriaga Kalea

ARKAITZ
Taberna

Pintxoak,
plater konbinatuak
eta ogitarleko mundialak

ABESLARI KALEA, 4 Tel: 943 83 16 57

LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnoa: 943 83 59 00

ASADOR XIXARIO *Eusko Gudarai Kalea, 2*
Tel: 943 83 00 07

Igo zaitoz haize berrietara!

Galeria I

943890416-677149932
galeria.iorio@hotmail.com

LOBETXU JATELEKUA

Eusko Gudarai, 18 Tel: 943 83 00 07

LURDES
RESTORANTE

Eusko Gudarai, 4 - Tel. 943 83 00 24

Allianz

Marigre Zaldúa
aseguru agentea

Ibil Ordo, 10 behe-oina
telefonoa: 943 13 47 60
faxa: 943 83 57 52
e-maila: zaldua.delacruz.paz@allianz.es

INDO
Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

MA*NA lokutorioa

... eta beste asko (santitasunak, berrikuntza, abentak...)
... eta beste asko (santitasunak, berrikuntza, abentak...)
... eta beste asko (santitasunak, berrikuntza, abentak...)

Enfaino enparantza, 1 Tel./Fax: 943 13 50 82
20810 ORIO (Gipuzkoa) loci-mana@euskalnet.net

islada
BERRIKUNTZA ZENTROA

Sabela De Miguel - Sarri Cendoya

Kabuen kalea, 2 behean Orrio 20810
Tel: 943 133 836
e-maila: isladorio@hotmail.com

TANATORIO ZARAUZ
EUROFUNERARIAS TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorrak

- * Donostia eta probintziako ospitaleetan
- * Aldiorako zerbitzua
- * Belatorio gelak
- * Korioak, eskalak, tramitazioak...

Araba kalea, 35 Zarautz

Tel: 943 83 49 37 / Faxa: 943 89 49 43
e-mail: haresp@harezpfi.net

LOBETXU JATELEKUA

Eusko Gudarai, 18 Tel: 943 83 00 07

URANGA
burdindegia

Opari, menaje eta erresuntak

feruranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudarai, 5



Sanmartinak Lizargate zaharrear

Gaur egun ere bizirik irauten duen ohitura dakarkigu gogora goiko argazkiak: mutil ardoa. Usadio horren arabera, bailarako gizonak ardo kupel baten inguruan biltzen ziren, mokadu eder bat egiteko, festak ospatuz. Garai haietan, emakumezkoek debekatua izaten zuten afari hartara joatea. Orain, aldiz, gizonezkoek eta emakumezkoek mahai

beraren bueltan afaltzen dute, kupelaren usainean. Azken urteotan, gainera, kupela brik batez ordezkatu dute Ortzaiakan, baten batek kupela etxera eramaten zuela eta.

1965. urte hartan, Errastinetik laurogei litroko ardo kupela hartu zuten Txankak eta Joxemari Makazagak bizkarrean. Txandaka eraman zuten biek Lizargateraino.

Hauexek dituzue

argazkian ageri direnak, zutik, ezkerretik hasita: Faustino *Sakabi* trikiti jotzailea, Pantxika emaztea eta Joxemari Makazaga; aurrean, belauniko, ezkerretik hasita, berriz: Antonio Zumeta *Txanka*, Joxemari Azurza *Lertxundi*, Sakabiren semea, eta Joanito Makazaga.

ARGAZKIA: ARTXIBOA
INFORMAZIOA: KARKARA

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

KARKARA

iñaki argazkiak
caperochipi

ezkontzeko asmorik bai?

www.ikapero.com/ezkontzak
659378751
ikapero@ikapero.com

URAITZ
Lurrindogia
Arriak

Eraketa: 17ko 943 83 18 07

TAILER MEKANIKOA
MANTEROLA S/L
TKORROKAK - BALBULAK

Santiago ezua - 18 postakutxa
Tel. 943 830 743
Fax. 943 134 634
E-mail: tmmanterola@euskalnet.net
20 810 ORIO - GIPUZKOA

TMM

AENOR
R
EUSKALNET
ISO 9002

Estaroko balbula
AENOR kalitate ziurtagiriduna

KRITIKA



Azaroaren 26a arte dago ikusgai kultur etxeko areto nagusian Oteizari buruzko erakusketa.

KARKARA

Oteizari buruzko erakusketa erakargarria

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Jorge Oteiza Fundazio Museoak elkarlanean osatutako erakusketa dago kultur etxean.

Oteizaren bizitza eta obra ardatz hartuta, elementu sinpleak erabiliz erakustokia erakargarria bihurtzen da, atsegina, gustura eta erraz ikustekoa. Argizatze egoikiarekin efekto polita lortu dute.

Orioko erakusketari beste herrietan izango ez duen elementu bat gehitu zaio, hemen bakarrik ikusiko

dena: Nuria Ruiz Cabestanyk egindako *Oteiza bere dardar minetan* bideo interesgarria, Oteizaren eta Orioren arteko harremana aztertzen duena. 20 minutuko lana telebista txikian ikusi beharra, horretarako pantalla handia duen gelan ez da ulertzen.

Informazioa eta irudiak dituzten mahaien gainean kuboak agertzen dira argazkiekin eta, inguruan buelta emanaz, haien bidez jasotzen ditu bisitariak horiek denak: indar handikoak dira argazkiak, ongi aukeratuta; astuna egiten da tes-

tuak irakurtzea, ordea, luzeak eta teknikoegiak direlako. Oteiza jendearengana hurbiltzeko egiten bada horrelako erakusketa, edozeinek ulertzeko moduko azalpenak eskaini behar dira. Ez da hori gure kasua: gaztelaniakoa da jatorrizko testua, antipatikoa eta gogorra; euskarazko itzulpena, berriz, zeharo arrotza gertatzen da, beste hizkuntzaren menpekoa eta bizirik eta gatzik gabea. Oteizaren eta euskararen arteko bategin ezinaren ondorio ote?

ANA G. DE TXABARRI

IKASLEAK IDAZLE



ADRIAN HUEGUN | LH6

Zaragueta eskola

Guk eskola ondoan zelai eder eta handi bat geneukan. Etxe batzuk egiten hasi zirenean, pixkanaka-pixkanaka gure zelaia puskatzen hasi ziren. Niri pena handia eman zidan txikitan hor jolasten nuelako lagunekin: ezkutaketan, harrapaketan, futboleant, beisboleant eta, elurra egiten zuenean, elur panpinak egiten. Beste batzuetan elur bolekin gerra egiten genuen, baina beti norbaitek negarrez bukatzen zuen.

Orain etxe asko egin dituzte; etxeak amaitzeko hilabete batzuk falta dira eta espero dut etxe horietara jende asko etortzea bizitzera. Jenderik etorriko ez balitz, gaizki irudituko litzaidake zelai hori dena hondatu izana. Etxebizitzak betetzen badira beharrezkoak zirela ikusiko dut behintzat.

Jendea etortzea espero dut.

tel/fax: 943 89 00 69
Etxeak kalea, 4. 20.600 ZARAUZ

URBIDE

ITURGINTZA, BEROGINTZA
GASA, BAINU ERAKUSKETA

Sukalde eta bainuen erreformak

XANTI MUJIKA

Igeltseritza

699 46 76 21
943 13 10 37

Zaragueta Eskola Ori

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezkuritza.net

HANDIK ETA HEMENDIK



“Badirudi gaur egun Behobia irabaztea Munduko Txapelketa irabaztea dela. Prentsan, esaterako, sekulako oihartzuna ematen diote, bai lasterketaren astean bai ondorengoan...”

KAMEL ZIANI

Korrikalaria
Sasoian
2008/11/01

“Aspaldi galdu genuen xalotasuna, eta bizitzaren antzerkiko ikusleok beste aldera begiratzen ikasi genuen arriskua, injustizia, oinazea usaintzen hasi orduko.”

ANJEL LERTXUNDI

Idazlea
Berria
2008/11/01

OSPAKIZUNA



Zorionak, Julen!

Azaroaren 21ean lau urte handi beteko ditu Julen Gozategi Otaegik. Etxekoekin ospatzeko egun berezia izango da, tarta goxo eta guzti. Lau poxpoloak ere putz eginez itzali beharko ditu Julenek, bere nahiak bete daitezen.

Aitak, amak, arrebak, osaba-izebek, lehengusu-lehengusinek eta gainerako familiarteko eta lagunek zorionik beroenak opa dizkiote. Zorionak, Julen, eta urte askotarako!

ZORITXARRAK!



Orioko Udalarri

Denbora puska bada lur azpian sartuta dauden Eusko Gudari eta Arrantzale kaleko basura edukiontzia hondatuta daudela: basura ez da ongi sartzen eta, askotan, jendeak edozein modutan espaloi gainean uzten ditu poltsak.

Narrats eta zikin egoten da inguru guztia, peligroso ere bai ez direlako ondo ixten eta jendearen joan-etorria oztopatzen dutelako (pibote batzuk jarrita daude fruteria aurrekoan).

Lotsagarria da hain arreta gutxi erakustea halako garrantzia duen gaian, zeinek eta Udalak berak, horretan eredu izan behar duen horrek.

Faroeko bakailaoa daukagu

ITSAS MENDI

gutzizak

Eusko Gudari, 5 Tel: 943 24 37 74 Oro

ZAPATA KONPONKETAK

Lan egutegia: astelehena - osteguna eta larunata - igandak
Laruneguetan: astelehena - igandak
Asteleko osporantza, Oro

Peikeria eta estetica mistoa

ZISS

- Tinta ongiak eta koloretan naturalak
- Beheak eta tinta irakurkora
- Arrozal ongiak
- Pailera
- Depilazioa

San Bitorio, 1 Tel: 943 85 31 70

ZUMINTZA - le-apaldegia

marka
pailera
maillak
depilazio berrak eta ongi

SOLARIUM

tel: 943 83 17 56

le-apaldegia

MARIJO

Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - bajo
Tel. 943 13 47 29
ORIO

gizarteia

MIRANDA

100% natural

farina eta bolbo eskailera...
behar diren artoak leku
egoki dituzte

Urdazeta bidea, 1 -660 42 32 70- SARAUTZ

ITZALA

Kartuta jokatzen
dizkete

tel. 943 83 12 59

KOLON TXIKI

Herriko Esporantza, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44

ORAIN DELA 25 URTE

Festarik festa: sanmartinak eta banderen bedeinkazioa

Azaroaren 11n egin ziren San Martin bailaran auzoko festak. Goizeko 11:00etan meza izan zen, zaindariaren ohorez eta 12:00etan oilasko biltzea egin zen. Arratsalde, txokolatea banatu zuten barrua berotzeko; 22:00etan, Agirre, Lizaso, Etxeberria eta Iribar bertsoarien saioa izan zen; eta, eguna bukatzeko, Trakets taldearekin erromeria izan zen, goizaldera arte.

Hilaren 13an, berriz, Udalak eta herriko elkarteek arraunlariei omenaldia egin zieten, denboraldi hartan 25 bandera ekarri zituztelako. Egun osoko festa antolatu zuten: 08:30ean, kalejira herriko txistulariekin; 10:00etan, meza eta banderen bedeinkazioa; 12:00etan, 1975eko eta 1983ko arraunlariekin osatutako ontzien estropada; 14:30ean, herri bazkaria plazan eta arratsaldean, baltsean; eta egun osoan *Herrikoiak* txaranga eta trikitilariak ibili ziren kalez kale. Arraunlarien omenez, etxe guztiak ikurrienez apaindu ziren.

IDI-DEMA

Azaroaren 27an Euskadiko 2. idi txapelketa jokatu zen Gasteizko Forua Enparantza probalekuan. Erandion, Martiartun eta Leioan jokatuak probetan lortutako emaitzei esker, zazpi idi-uztari aritu



Euskadiko 2. idi txapelketa jokatu zen Gasteizko Forua Enparantza probalekuan eta Oliden anaien idi pare 3. izan zen

Gehenez ere, besteak beste, 6.000 kilo txitxarro, 10.000 kilo antxoa, 8.000 kilo makaela arrantza zitzaketen baxurako ontziek

ziren txapelketan, bakoitza 30 minutuko proban. Herrestan eraman beharreko harria Erandiokoa zen, 3.000 kilokoa. Azkenean, Olegario Bilbao leiotarrak irabazi zuen txapela 59 iltze, 3/4 eta 4,35 metroekin. Bigarren Elordui anaiak izan ziren —48 iltze pasatxo—

eta Oliden anaiak, oriotarrak, hirugarren, 47 iltze pasatxo eginda. Gainontzeko sailkapena, Mañarikuak, Hormaetxek, Trabadua-Bustamantek eta Juan Jose Bilbaok osatu zuten, hurrenez hurren. Azkenak ohikoa zen zakukada baba jaso zuen.

Sariei dagokienez, garai-kurra eta mantaz gain, 50.000 pezeta jaso zituen txapeldu-nak; bigarrenak, berriz, 45.000 pezeta eta hurrenez hurren, 40.000, 35.000, 30.000, 25.000 eta 20.000 pta. Parte hartzaile bakoitzak, gainera, 5.000 pezetako gehigarria jaso zuen joan-etorriko gastuetan laguntzeko.

ARRANTZA

Baxurako arrantzak neguko kanpainako arauak zehaztu zituen: arrainen prezioak, arrantza zitezkeen zenbatekoak eta zein izango ziren arrantzaleen jai egunak, gehienbat; gehenez ere, 6.000 kilo txitxarro, 10.000 kilo antxoa, 8.000 kilo makaela, 10.000 kilo potakarra, 6.000 kilo berdel arrantza zitzaketen baxurako itsasontziek; sardinari ez zioten mugarik jarri. Prezioei dagokienez, 45 gr. baino txikiagoko antxoa kiloa, esaterako, 140 pezetatan saldu behar zen gutxienez.

Orion, azaroaren 7an egin zen Kofradian araudiaren berri emateko bilera.

JAIOTAKOAK

- Ibai Gozategi Otaegi, Orion, azaroaren 10ean.
- Estitxu Orbañanos Manterola, Orion, azaroaren 4an.
- Enara Iglesias Alonso, Orion, azaroaren 1ean.


EZKONDUTAKOAK

- Igon Lertxundi Lizarralde eta Ainhoa Okariz Gabellanes, Orion, azaroaren 8an.
- Gorka Otxotorena Ibañez eta Julia Zhushman, Orion, azaroaren 8an.
- Olha Novykova eta Tomas Viñuela Suarez, Orion, azaroaren 7an.

HILDAKOAK

- Ez da hildakorik izan.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora: 943 83 15 27



Izarra
ERREBELATU DIGITALA
Telobista erosita DVD GRABACILUA
OPARI
MOMENTUAN
TIEN 21

Bideo Produktzioa
Aritzaga 15, Orrio / izarra7@vodafone.es / 943 83 33 81

HAIZE BERRI
telokari-jakiteko-kafetaria
Plater konbinatuak,
bakofak,
hamburgerak,
vatioak,
aguraketa menta...
eta etxera eramateko sarbitzaila

Orrio Kalea, Orrio / 943 83 81 81

ODITZ
Orrio Kalea, Orrio
tel. 943 83 00 89

JON SARASUA | GARABIDE ELKARTEKO KIDEA

“Euskararen esperientzia beste herriekin konpartitu behar da”

Hizkuntza gutxituen errealitateaz eta euskal esperientziaren ekarpenaz solasean aritzeko mahai inguruia antolatu zuen Garabide elkarteak azaroaren 6an. Jon Sarasua taldekidearekin izan gara.

Derrigorrezko galdera: zer da Garabide?

Bi bat urteko elkarte berria da Garabide, bi arlo bateratuzetik sortua: euskalgintza eta hirugarren munduarekiko garapenerako lankidetzaz.

Hankak bi mundu horietan izandako lagun batzuk elkartu gintuen kezka batek: herri batek, garapenerako lankidetzaz egitean, beste herri batzuekin konpartitzeko zein esperientzia dituen galdetu behar luke, lehendabizi; emateko zenbat diru daukan bakarrik ez. Xoxak erabiltzekotan, esperientziok konpartitzeko izan dadila. Kooperazio asistentzial batean erortzen gara, bestela; hau da, on asko egiten delakoan, proiektua finantzatzen da eta dependentsia berriak sortzen dira, betiko eskema errepikatuz: guk eman, haiek jaso; guk dakigu, haiek ikasi. Nahiz eta proiektu horiek beharrezkoak izan eta aurrera atera, dinamika negatibo berriak sortzen dira.

Pentsatu eta egin.

Lankidetzaz kontzeptua beste oinarri batzuen gainean ezarri dugu. Hamar urtez saiatu ondoren, pilotutako esperientzia bizkar gainean genuela, gure nortasuna gartzeko egindako lana 3. munduko herriekin —oro har, mundukoekin— konpartitu behar genuela pentsatu genuen. Senak esaten zigun euskararen esperientziatik abiatuta, ikasteko, erakusteko eta trukatzeko zubiak erai-



Sorreratik da Jon Sarasua Garabide elkarteko kide.

KARKARA

Ez dugu dependentsiako betiko eskema errepikatu nahi: guk eman, haiek jaso; guk dakigu, haiek ikasi

kiko dituen erakundea sortzeko gaitasuna genuela.

Eta zer moduz doakizue?

Uste baino alor oparagoan sartu gara. Ameriketako herri indigenetako herri klabeak deskubritzen poliki hasiko ginelakoan geunden, bai-

Pertsonalki, mundua sakonago ezagutzeko aukera eta lagun gehiago eman dizkit. Aberastuta atera naiz

na lehen truke programan konturatu ginen aukera, behar eta larrialdi asko dagoen mundu batean murgildu garena.

Zer da truke programa?

Elkarteak martxan duen programetako bat da, baina ez bakarria. Herri indigenetako 10

bat ordezkari gonbidatzen ditugu Euskal Herrira, hilabete pasatzera, eta bisita, ikasketa programa eta ideia truketara intentsibo bat egiten ditugu. Alor ezberdinak ezagutu ditzaten saiatzen gara. Aurten, esaterako, Euskaltzaindian, ETBn, eskoletan... izan dira, herrietako eta nazioko esperientzia txiki eta handiak jasotzen. Bestalde, guk ere badaukagu haiengandik zer ikasia.

Eta gero, zer?

Proiektu jakinetarako hitzarmenak egitea izango da hurrengo pausoa. Ekuadorren, adibidez, kichwa telebista bat sortzeko lanetan hasi gara. Euskal telebista txiki eta handiek pilotutako esperientzia baliagarria izango zaie proiektu hori han nola sortu eta bultzatu jakiteko.

Zer aldatu da lehen truke programatik bigarrenean?

Oso ederra izan zen lehen, sentimendu asko sortu ziren eta izugarri ikasi genuen. Hala ere, gure artean ikas zeza ketena mamitzeko denbora gehiago behar zuten eta egonaldia 3 astetik 4ra luzatu genuen. Aurten, berriz, estu ibili gara; gauza asko erakutsi nahi dizkiegu eta informazio guztia digeritzeko denbora gutxi izan dute. Hurrengoan pixka bat apaldu beharko dugu, metodologia aldetik.

Zer eman dizu horrek guztiak zuri?

Pertsonalki, mundua sakonago ezagutzeko aukera eta lagun gehiago eman dizkit. Aberastuta atera naiz. Herri bezala, gure nazioartekotasuna garatu behar dugula ikusarazi dit: euskaldunok, hizkuntza komunitate moduan, elkarrekikotasuna landu behar dugu: hartu eta eman.

TREN ORDUTEGIAK

DONOSTIA - ZARAUTZ

Donostia	05:47	06:17	06:47	07:17	07:47	08:17	08:47	09:47	10:47	11:47	12:17	12:47	13:17	13:47
Aia-Orio	06:14	06:44	07:14	07:44	08:14	08:44	09:14	10:14	11:14	12:14	12:44	13:14	13:44	14:14
Zarautz	06:19	06:50	07:20	07:50	08:20	08:50	09:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20

Donostia	14:17	14:47	15:17	15:47	16:17	16:47	17:17	17:47	18:17	18:47	19:17	19:47	20:47	21:47
Aia-Orio	14:44	15:14	15:44	16:14	16:44	17:14	17:44	18:14	18:44	19:14	19:44	20:14	21:14	22:14
Zarautz	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

ZARAUTZ - DONOSTIA

Zarautz	06:08	06:38	07:08	07:38	08:08	08:38	09:08	10:08	11:08	12:08	12:38	13:08	13:38	14:08
Aia-Orio	06:15	06:45	07:15	07:45	08:15	08:45	09:15	10:15	11:15	12:15	12:45	13:15	13:45	14:15
Donostia	06:39	07:09	07:39	08:09	08:39	09:09	09:39	10:39	11:39	12:39	13:09	13:39	14:09	14:39

Zarautz	14:38	15:08	15:38	16:08	16:38	17:08	17:38	18:08	18:38	19:09	19:38	20:09	21:09	22:09	22:38
Aia-Orio	14:45	15:15	15:45	16:15	16:45	17:15	17:45	18:15	18:45	19:15	19:45	20:15	21:15	22:15	22:45
Donostia	15:09	15:39	16:09	16:39	17:09	17:39	18:09	18:39	19:09	19:39	20:09	20:39	21:39	22:39	23:09

AUTOBUS ORDUTEGIAK

LANEGUNETAN

Donostia	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Donostia
06:55	07:25	07:35	06:45	06:55	07:30
07:40	08:15	08:25	07:15	07:25	08:00
08:10	08:45	08:55	07:45	07:55	08:30
08:40	09:15	09:25	08:15	08:25	09:00
09:10	09:45		08:45	08:55	09:30
09:40	10:15	10:25	09:20	09:30	10:10
10:40	11:15	11:25	09:45	09:55	10:30
11:40	12:15	12:25		10:30	11:10
12:10	12:45	12:55	10:45	10:55	11:30
12:40	13:15	13:25	11:45	11:55	12:30
13:10	13:45	13:55	12:45	12:55	13:30
13:40	14:15	14:25	13:20	13:30	14:10
14:10	14:45	14:55	13:45	13:55	14:30
14:40	15:15	15:25	14:20	14:30	15:10
15:10	15:45		14:45	14:55	15:30
15:40	16:15	16:25	15:20	15:30	16:10
16:40	17:15	17:25	15:45	15:55	16:30
17:40	18:15	18:25		16:30	17:10
18:10	18:45		16:45	16:55	17:30
18:40	19:15	19:25	17:45	17:55	18:30
19:10	19:45	19:55	18:45	18:55	19:30
19:40	20:15	20:25		19:30	20:10
20:15	20:50	21:00	19:45	19:55	20:30
21:00	21:35	21:45	20:45	20:55	21:30
22:15	22:50	23:05	21:15	21:25	22:00

ASTEBURUETAN

Donostia	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Donostia
08:00	08:35	08:45	06:45	06:55	07:30
09:00	09:35	09:45	07:45	07:55	08:40
10:00	10:35	10:45	08:45	08:55	09:40
11:00	11:35	11:45	09:45	09:55	10:40
12:00	12:35	12:45	10:45	10:55	11:40
13:00	13:35	13:45	11:45	11:55	12:40
14:00	14:35	14:45	12:45	12:55	13:40
15:00	15:35	15:45	13:45	13:55	14:40
16:00	16:35	16:45	14:45	14:55	15:40
17:00	17:35	17:45	15:45	15:55	16:40
18:00	18:35	18:45	16:45	16:55	17:40
19:00	19:35	19:45	17:45	17:55	18:40
20:00	20:35	20:45	18:45	18:55	19:40
21:00	21:35	21:45	19:45	19:55	20:40
22:00	22:35	22:45	20:45	20:55	21:40
22:30	23:05	23:15	21:45	21:55	22:40

OHARRA: lanegunetan koadro argidun ordutako autobusak Urbilatik pasatzen dira. Asteburuetan, berriz, gaztiak pasatzen dira. Koadro lanetako ordutak larunbatetako (laneguna) zerbitzua bakarrik dagozkie.

Aia eta Orio oroko autobus zerbitzua Landabusek darma. Zerbitzuan buruzko informazioa lortzeko zenbait bide daude:

www.landabus.com


Tf: 943 24 01 14

sme-a 5360 zerbakia

ITSASOA

Azaroa	Itsasgora	Itsabehera	Ilargia
14	04:28 eta 16:56	10:39 eta 22:57	
15	05:13 eta 17:45	11:27 eta 23:44	
16	06:02 eta 18:38	12:19 eta _____	
17	06:56 eta 19:36	00:34 eta 13:15	
18	07:57 eta 20:40	01:30 eta 14:16	
19	09:06 eta 21:54	02:32 eta 15:25	☾
20	10:20 eta 23:10	03:43 eta 16:39	
21	11:34 eta _____	04:58 eta 17:50	
22	00:17 eta 12:41	06:09 eta 18:51	
23	01:13 eta 13:36	07:08 eta 19:42	
24	02:00 eta 14:23	07:57 eta 20:25	
25	02:41 eta 15:03	08:41 eta 21:04	
26	03:18 eta 15:40	09:21 eta 21:40	
27	03:52 eta 16:14	09:59 eta 22:15	●
28	04:26 eta 16:47	10:36 eta 22:48	

ZAINTZAKO BOTIKAK



AZAROA

- 14n, Etxeberria.
- 15ean eta 16an, Larrañaga.
- 17an, Azaldegi.
- 18an, Larrañaga.
- 19an, Zulaika.
- 20an, Etxeberria.
- 21ean, G. Artiñano.
- 22tik 28ra, Lasa.
- 29an eta 30ean, Mutiozabal

- Azaldegi:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
- Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
- Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
- Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
- Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio
- G.Artiñano:** Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
- Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
- Zulaika:** Bizkaia kalea, 41 943 13 39 94 Zarautz

HITZALDIA

■ Azaroaren 24an, Zaharren Babeslekuak Kutxaren eta Nazaret zentruaren laguntzaz antolatuta, hitzaldia. Gaia: Alergien mundua. Hizlaria: Ainara Lopetegi. Orioko Zaharren Babes Lekuan, 18:00etan.

BILERAK

■ Azaroaren 24an, kultur eragileen mahaiaren bilera. Orioko udaletxeko teilatupeko gelan, 19:00etan.

■ Azaroaren 20an, sanikolasak prestatzeko bilera. Orioko udaletxeko teilatupeko gelan, 19:00etan.

■ Orion, ostiralero, *Alkoholiko Anonimoen* bilerak, 20:00etan, Goiko Kalean, Galtzarri elkartearen ondoan dagoen elizaren lokalean.

■ Azaroaren 18an, 20an, 25ean eta 27an, OKK Gazte Asanbladako bilera irekiak. 19:00etan, Kosta tailerlean.

KONTZENTRAZIOA

■ Azaroaren 28an, euskal presoak Euskal Herriratzearen aldeko kontzentrazio isila. 20:00etan, Orioko plazan.

BIDEO EMANALDIA

■ Azaroaren 26an, *Fragmentos* pelikularen

**Mendi irteera**

Orioko Herri Ikastolak antolatuta, azaroaren 23an mendi irteera izango da herriko gurasoentzat eta haurrentzat. Oriotik 09:00etan aterako dira, Mendibeltzi buelta eman, herrira eguerdirako itzultzeko.

Izena Ikastolan eta Lore eta Uranga burdindegietan eman behar da azaroaren 21a baino lehen.

bideo emanaldiak.

Iraupena: 70 minutu. Orioko kultur etxean, 15:00etan eta 19:00etan.

BINGOA

■ Zaharren Babes Lekuan antolatuta, bingo saioak, asteazkeneko. 16:00etatik 18:00etara, udaletxeko teilatupeko gelan.

TRASTE ZAHARRAK

■ Orion, azaroaren 26an jasoko dituzte altzariak. Bezperan utzi behar dira eta Udalean abisua eman.

PODOLOGOA

■ Aian, azaroaren 18an. Ordua hartzeko Udaletxean eman behar da izena. Tf: 943 13 11 44.

FUTBOLA

■ Azaroaren 15ean, regional kategorian: Orio-Btls. Jubenilean: Idiazabal-Orio. Kadeteen: Orio-Sto Tomas Lizeoa. Infantilean: Sto Tomas Lizeoa-Orio. Emakumezkoen Ligan: Zestoa-Orio.

■ Azaroaren 22an, regional kategorian: Aretxabaleta-Orio. Jubenilean: Orio-Aurrera Ondarroa. Kadeteen: Usurbil-Orio. Infantilean: Orio-Amara Berri. Emakumezkoen Ligan: Orio-Amaiak Bat.

ARETO FUTBOLA

■ Azaroaren 16an, Nazional B kategorian: Orioko Tabernak-UZ S Coop. ■ Azaroaren 23an, nazional B kategorian: Sasikoa-Orioko Tabernak.

PLAIEROAK

■ Azaroaren 16an, Zarauzko hondartzan: Xixario-Aranola; Unar-Kirkilla Enea.

SENDOTZA

■ Azaroaren 21ean, sendotzako taldeetan hasi nahi duten gazteek —1993a baino lehen jaiotakoak— izena eman beharko dute: Aiako elizan, 20:00etan, eta Orioko parrokiako saloian, 20:30ean.

AZOKA**Iragarkietarako txokoa**

Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

ALOKAIRUA

■ Edozein negozio zabaltzeko lokala alokagai Orion, Eusko Gudari kalearen erdi erdian. Informazio gehiago: 943 83 09 29 (Pilar).

■ Alokatzeko pisu bila nabil Orion. Tf: 625 70 37 05 (Joseba).

SALGAI

■ Volkswagen Golf autoa salgai, 1991. urtekoa. Tf: 630 77 88 07. ■ Sagarminak (makatz basatiak) saltzen dira. Tf: 662 390 838. Felix. ■ Mercedes Class E autoa salgai. 2003. urtekoa, 89.000 km eta ondo zaindutakoa. Tf: 647 10 16 46. ■ Hiru ateko Peugeot 206 autoa salgai. 10 urtekoa, 144.000 km. Gasolina. Egoera onean dago. Prezioa: 2.800 euro. Tf: 615 73 69 11.

■ Taxi lizentzia salgai, Orion. Tf: 669 89 10 20. ■ Izozgailua salgai. Berriberria eta egoera onean. Tf: 696 33 28 80 (Jone).

GALDUTAKOAK

■ Zafiro bat duen perla txurizko belarritakoa galdu nuen urriaren 11n, Blinketik Ardatza bitartean. Estimua handia diot eta aurkitzen duenari asko eskertuko nioke 943 83 13 22 zenbakira deituko balit. ■ Pendrive bat agertu zen urriaren 24an Eusko Gudari Eroski supermerkatuan. Kolore txuria eta gris metalizatua

ditu eta KARKARAKO bulegoan dago gordeta.

■ Zilar koloreko eraztun bat agertu zen Orioko kultur etxe parean, urrian. Kolore ezberdinetako karratu batzuk ditu aurreko partean. Jabeak KARKARAREN bulegoan jaso dezake.

LAN ESKAINTZAK

■ Montaje eta ajuste mekanikoan aritutako langilea behar dugu. 669 01 43 49.

EROSGAI

■ Arko motako izozgailu handi bat erosiko nuke. Tf: 696 33 28 80 (Jone).



Patxi Jagoba Azpirotz Manterola

gipuzkoan zehar

paseo moduan egiteko

161 ibilbide lauak edo nahiko lauak



Urriak 29tik aurrera eskuragarri!

Noaua!n eta ohiko liburudendetan salgai

Noaua!!
www.noaua.com

laguntzaileak:

